BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

2338

EBAZPENA, 2013ko apirilaren 30ekoa, Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariarena, Arabako Unibertsitate Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren osaera aldatzeko dena.

Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariak, 2012ko azaroaren 15eko Ebazpenaren bidez (azaroaren 30eko EHAA, 232. zk.), Arabako Unibertsitate Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren akreditazioa ematea onartu zuen.

Ospitaleak Batzordearen osaera aldatzeko eskaera egin du. Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoak akreditatzeko Osasuneko sailburuaren 1994ko irailaren 28ko Aginduaren 3. eta 7. artikuluetan xedatutakoa betez (urriaren 24ko EHAA, 202. zk.), eta Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen apirilaren 9ko 195/2013 Dekretuaren 12. artikuluak emandako egitekoak betez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Marianela Hernández López andrea, Medikuntzan eta Kirurgian lizentziaduna, Arabako Unibertsitate Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren lehendakariaren kargutik kentzea, eta Laura Barbero Cubillas andrea eta Enrique Bárez Hernández jauna, Medikuntzan eta Kirurgian lizentziadunak, batzordekide kargutik kentzea, eurek hala eskatuta.

Bigarrena.– Jesús Muñoz Fernández jauna, Medikuntzan eta Kirurgian lizentziaduna, Arabako Unibertsitate Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren lehendakari izendatzea, eta, Marianela Hernández López andrea, Medikuntzan eta Kirurgian lizentziaduna, eta Arantza Sáez de Lafuente Moriñigo andrea, Farmazian lizentziaduna, Arabako Unibertsitate Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoko kide izendatzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina. Halaber, ebazpena Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioari jakinaraziko zaio.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Osasuneko sailburuordeari edo Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena ofizialki argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 30a.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria,
MARÍA LUISA ARTEAGOITIA GONZÁLEZ.